

I.1. MARTXOAK 8 IKASTETXEAN

MARTXOAK 8 IKASTETXEAN

Zubigorri ikastetxean, Emakumeen Eguna hurbil dagoenez, proposamen hau egin dute egun hori ospatzeko.

Berdintasunaren Eguna deituko diote. Ez dute klaserik izango eta egun osoan hainbat jarduera egingo dituzte: futbol partidua, soka-saltoa, dantza, eskulanak... Tutoreek esan diete mozorrotuta etorri behar dutela: neskak mutilez eta mutilak neskez jantzita. Aukeratu behar dituzte normalean egiten ez dituzten jolasak eta jarduerak.



01

Zure ustez, zein da horrela mozorrotuta etortzearen helburua?

- A. Itxura xelebrea hartzea eta elkarri barre egitea.
- B. Neskak mutilen azalean eta mutilak neskenean jartzea.
- C. Ondo pasatzea.
- D. Inauteriak ospatzea.

02

Zure ustez, zergatik aukeratzen dituzte normalean egiten ez dituzten jolas eta jarduera horiek?

- A. Mutil askok egiten dituzten gauzak neska guztiak egiteko aukera izateko eta alderantziz.
- B. Jolasak eta jarduerak gaizki egiteko eta elkarri barre egiteko.
- C. Elkarrekin ondo pasatzeko.
- D. Jolas eta jarduera berriak ikasteko.

03

Egun horretan egingo dituzten jolasetan parte hartzeko, ikasleek beraientzat ohiko ez direnak aukeratu eta taldeak egin beharko

dituzte. Joni futbola asko gustatzen zaio eta askotan ibiltzen da. Oraingo honetan ezin izan du hori aukeratu eta soka-salto jolasean apuntatu behar izan du, baina ez du nahi. Ez daki jolasten eta talde horretan sartu diren guztiak zerbait badakite.

Gainera, talde guztiak ondo egin nahi dute saria irabazteko.

Talde horretakoa bazina, zer egingo zenuke?

- A. Haserretuko egingo nintzateke Jon gure taldean egoteagatik.
- B. Ondo pasatu eta Jonez barre egin.
- C. Ez nuke ezertxo ere ez egingo, egun bateko jolasa besterik ez da eta.
- D. Oraindik aste bete falta denez, praktikatzen lagundu.

04

Zure ikastetxean horrelako jaia ospatuko balitz, zer egingo zenuke?

- A. Niretzat erabat berria den jolasa aukeratuko nuke, horrela zerbait berria ikasiko bainuke.
- B. Jolas ezaguna aukeratuko nuke ahalegin gutxiago egiteko.
- C. Beste edozein egunetan bezala, nire jolas gogokoena aukeratuko nuke.
- D. Nire lagunek aukeratutako jolasean arituko nintzateke.